

## COVID-19 kasuen kudeaketa protokoloa

Protokolo hau idatzi eta aurrera eramateko Erronkari zein Zaraitzu Ibarretako Osasun Oinarrizko Zonaldeen Lehen Mailako Arreta Taldeekin elkar lan hestuan aritu eta arituko gara, Nafarroako Osasun Publiko eta Lan Osasunaren Institutuaren gainbegirapean. Talde desberdinen, eski-taldeen, ikasle zein irakasleen ostatueta zein autobusetako banaketaren,... kontrol zorrotza eramango da, eta Eski Kanpainako pertsona arduradunak ikastetxe bakoitzari kontaktu estu izan daitezkeen taldeen informazioa helaraziko die COVID kasu posible baten aurrean jarraipena eta kudeaketa arina izan dadin.

**Partehartze baldintzen, informazioa eman beharraren, informazioa jaso izanaren ondorengo baimenaren, PCR proba egiteko baimenaren eta 2021 Ipar Eskiko Eskola Kanpainan parte hartzeko baimenaren onarpen dokumentua ikastetxeen bidez bidaliko da familiek sina ditzaten.**

### 1. Partehartzaileek ez dute Eski Kanpainara joan behar baldintza hauetakoren bat betetzen badute:

- ❄ PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain badago.
- ❄ Bakartuta badago, PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirusaren infekzioa duelako.
- ❄ Berrogeialdian badago, COVID-19 kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- ❄ Hamabi urtetik beherako haurrak badira eta haien bizikide bat PCRa edo beste proba diagnostiko molekular bat egitearen zain badago, COVID-19arekin bateragarria den klinika izateagatik.
- ❄ **Koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu.**

### 2. Definizioak

- ❄ **Kasu susmagarria:** kuadro kliniko hau duen Kanpainako edozein partehartzaile edo langile; arnas infekzio akutua (handia), bat-batean agertua, edozein larritasunetakoa eta eragiten diona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire falta. Beste sintoma batzuk ere – hala nola odinofagia, anosmia, ageusia, giharretako mina, beherakoak, bularraldeko mina edo zefaleak – har daitezke SARS-CoV-2ak eragindako infekzioa duela susmatzeko zantzutzat, irizpide klinikoaren arabera.
- ❄ **Infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua:** kasu susmagarrien irizpide klinikoa betetzen duen pertsona, eta ANTIGENO FROGA positiboa duena.
- ❄ **Infekzio aktibo posiblea:** kasu susmagarrien irizpide klinikoa bete, eta ANTIGENO FROGA negatiboa izan arren, medikuak sintoma horien jatorria argi ez ikustean koronabirusak eragindako infekzio posiblea izan dezakeen pertsona.

❄️ **Kontaktua estua:** kontaktu estutzat hartuko da edozein partehartzaile egon dena 15 minutuz baino gehiagoz maskararen erabilera egokia egin gabe edo bi metro baino gutxiagoko distantziara infekzioa aktiboarekin baieztatutako kasu batengandik edo medikuaren iritziz infekzio aktibo posiblea izan daitekeen kasu batengandik. **Beraz, logela berean lo egiten duten eta otorduetan mahai berean esertzen diren partehartzaileak kontaktu estua izanen dira.** Eski Kanpainatik espazioen antolakuntzak ondoriozta ditzakeen kontaktu hestu kopurua gehienez 6 pertsonetako izanen dela bermatuko da.

### 3. Kasuen kudeaketa

Gaur egungo testuinguruan, kasuen detekzio goiztiarra eta haien bakartzea, bai eta kontaktu estuena ere, segurtasun-inguruneari eusteko neurririk garrantzitsuenetarikoa da.

❄️ **Partehartzaile batek Eski Kanpainan COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak baditu:**

- Osasun Etxean hitz ordua hartu eta bertan ANTIGENO FROGA eta beharrezko azterketa eginen zaio sintoma horien jatorria zein izan daitekeen zehazteko.
- Infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua bada, edo infekzio aktibo posiblea bada, partehartzaile hori ostatuan egoera horretarako prest izanen duten gelara eramanen da eta bertan itxarongo du familiakoak edo legezko tutoreak bila etorri eta etxera eraman arte. Gela horrek aireztapen egokia izan behar du, eta pedala duen zakarrontzia, horra botatzeko maskara eta behin erabiltzeko zapiak.
- Kontaktua estutzat jotzen diren partehartzaileei berrogeialdia ezarriko zaie (salbu eta PCR proba baten bidez baieztatutako koronabirus infekzio bat izan badu aurretik edo IgG positiboa izan bada aurreko lau hilabeteetan), beraz, ostatuko haien geletan itxaron beharko dute familiakoak edo legezko tutoreak bila etorri eta etxera eraman arte.
- Irakasle arduradunak familiakoei edo legezko tutoreei abisua emanen die, ahal den azkarren kotxez etor daitezten. Familia edo legezko tutoreek Eski Kanpainak irauten duen bitartean erraz aurkitzeko moduan egon beharko dute. Jakinaraziko zai harremanetan jarri beharko dutela bere osasun etxearekin edo Osasun Aholkuak Jasotzeko Zerbitzuaren erreferentziako telefonora deitu beharko dutela (948 290290), kasua ebalua dezaten. Eski Kanpainako zuzendaritzatik, Eski Kanpainako kontaktu estuen zerrenda emanen zaie jarraipen-taldeak egiten duen kudeaketa errazteko.
- Antigeno frogak negatiboa bada eta medikuek garbi ikusten badute zein izan daitekeen sintoma horien jatorria, Eski Kanpainan jarraitzeko erabakia mediku, irakasle arduradun eta familiaren artean hartuko da.

### ❄️ Kanpainako langileen kasuak kudeatzea

Kasu hauen kudeaketa partehartzaileenaren antzekoa izango da. Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio. kontaktu estuen agerpena minimizatuko da, prebentzio-neurrien bidez: bi metroko distantzia gordez, maskara erabiliz eta espazioak aireztatuz.

## IZEN-EMATE KUOTEN ITZULERA

- ❄️ Parte hartzailearen batek, arrazoi justifikatu batengatik, parte hartu ezin izango balu, ikastetxeak arrazoi hauen berri eman beharko dio kanpainako zuzendaritzari, izen-emate kuota berreskuratzeko eskubidea izateko.
- ❄️ Izen-ematearen ondoren eta parte hartu aurretik bajaldiren bat baldin badago ikastetxeak ikasleari egokitutako **disziplinazko espediente batengatik**, eta kanpainako zuzendaritzarekin adostu ondoren, ikasle horri izen-ematearen %50a itzuliko zaio.
- ❄️ COVID-19 -aren ondorioz txandaren bat bertan behera geratuz gero, edo partehartzaileek parte hartu ezinik geratuko balira PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten emaitzaren zain egoteagatik, PCR+ bidez diagnostikatutako koronabirusaren infekzioa izateagatik, berrogeialdian badago COVID-19 kasu baieztatu baten kontaktu estua izateagatik, hamabi urtetik beherako haurrak badira eta haien bizikide bat PCRa edo beste proba diagnostiko molekular bat egitearen zain badago COVID-19arekin bateragarria den klinika izateagatik edo koronabirusak eragindako infekzioarekin bateragarriak diren sintomak izateagatik, **izen-emate kuota itzuliko zaie**.
- ❄️ Partehartzailearen batek, behin Erronkaribarrean edo Zaraitzu Ibarrean egonda, jarduera utzi eta etxera joan behar badu, gaixotasuna dela, lesio bat dela, infekzio aktiboarekin baieztatutako kasua bada, medikuaren iritziz infekzio aktibo posiblea bada eta aurreko bi kasuetako kontaktu estua bada, **ez da izen-emate kuota itzuliko**